Sin./Fdo.: DOLTZA GOIRIZELAIA GOIRIGOLZARRI 2024-06-06
Ord./Sust.: JOSEBA MIKEL GARCIA PEREZ
IDAZKARITZA OROKORREKO UNITATEKO BURUA
JEFE/A UNIDAD DE SECRETARÍA GENERAL
Sin./Fdo.: AGER IZAGIRRE LOROÑO - 2024-06-06
FORU DIPUTATUA ETA IDAZKARIA
DIPUTADO/A FORAL Y SECRETARIO/A

Bizkaia
foru aldundia
diputación foral

**AGER IZAGIRRE LOROÑO HERRI ADMINISTRAZIORAKO ETA ERAKUNDE HARREMANETARAKO FORU DIPUTATU ETA KONTSEILUKO IDAZKARI JAUNAK,**

**HAUXE EGIAZTATZEN DU:**

Bizkaiko Foru Aldundiak, **bi mila eta hogeita lauko ekainaren seian** egindako bilkura-saioan, erabaki hau hartu zuela, besteak beste: **eguneko aztergaien zerrendako 12. gaia.**

**"12.- ERABAKI PROPOSAMENA, ZERTARAKO ETA BIZKAIKO FORU ALDUNDIAREN ETA GESTIÓN DE SERVICIOS RESIDENCIALES S. COOP. ENTITATEAREN ARTEAN SINATUKO DEN LANKIDETZA HITZARMENA ONESTEKO. HITZARMENAREN XEDEA DA BURUKO GAIXOTASUNA DUTEN PERTSONENTZAKO EGOITZA-ZERBITZUA EMATEA OIZPE EGOITZA-OSASUN MENTAL ZERBITZUAN.**

**Lehenengoa**.- Bizkaiko Foru Aldundiaren **(IFZ: P4800000D)** eta **GESTIÓN DE SERVICIOS RESIDENCIALES S. COOP. (IFZ: F20795837)** entitatearen arteko lankidetza hitzarmena onestea. Hitzarmenaren xedea da buruko gaixotasuna duten pertsonentzako egoitza-zerbitzua ematea **OIZPE EGOITZA-OSASUN MENTAL ZERBITZUAN**, hitzarmenean ezarritakoarekin bat etorriz. Horren testua, jasota gera dadin, bilkura-saio honen aktari gehitu zaio 10. eranskin moduan.

Hitzarmena **2024ko urtarrilaren 1etik 2025eko abenduaren 31ra** egongo da indarrean, atzeraeraginezko ondorioekin.

Aurrekoa gorabehera, epea amaitu baino lehen, alde biek hala adostuta, luzapen bakarra egitea erabaki ahal izango da, hitzarmenaren hasierako epearen iraupen berekoa, salbu eta alde bietako edozeinek berariaz eta horren fede emanez hori salatzen badu, gutxienez **3 HILABETEKO** aurrerapenez.

**Bigarrena**.- Betearazpen-epeari eta hitzartutako plaza kopuruari dagokienez, hitzarmenaren gehieneko prezioa **2.798.170,00 eurokoa** izango da **(% 4ko BEZarekin)**, honako xehetasun hauen arabera:

**AGER IZAGIRRE LOROÑO, DIPUTADO FORAL DE ADMINISTRACIÓN PÚBLICA Y RELACIONES INSTITUCIONALES Y SECRETARIO DE LA DIPUTACIÓN FORAL DE BIZKAIA.**

**CERTIFICA:**

Que la Diputación Foral de Bizkaia, en sesión celebrada el día **seis de junio de dos mil veinticuatro**, adoptó entre otros, el siguiente Acuerdo**: Asunto nº 12 del Orden del Día.**

**"12º.- PROPUESTA DE ACUERDO PARA LA APROBACIÓN DEL CONVENIO DE COLABORACIÓN A SUSCRIBIR ENTRE LA DIPUTACIÓN FORAL DE BIZKAIA Y LA ENTIDAD GESTIÓN DE SERVICIOS RESIDENCIALES S. COOP., PARA LA PRESTACIÓN DE UN SERVICIO RESIDENCIAL PARA PERSONAS CON ENFERMEDAD MENTAL EN LA RESIDENCIA OIZPE EGOITZA-OSASUN MENTAL ZERBITZUA.**

**Primero**.- Aprobar el Convenio de Colaboración entre la Diputación Foral de Bizkaia **(NIF: P4800000D)** y la entidad **GESTIÓN DE SERVICIOS RESIDENCIALES S. COOP. (NIF: F20795837)** para la prestación de un servicio residencial para personas con enfermedad mental en la **RESIDENCIA OIZPE EGOITZA-OSASUN MENTAL ZERBITZUA**, de acuerdo con lo estipulado en el texto del Convenio, que para constancia se une al Acta de la presente sesión como Anexo nº 10.

La vigencia del presente Convenio se extenderá desde el **1 de enero de 2024 hasta el 31 de diciembre de 2025**, con efectos retroactivos.

No obstante, lo anterior, antes de la finalización del plazo, se podrá acordar de mutuo acuerdo una única prórroga de la misma duración que la del plazo inicial del Convenio, salvo que cualquiera de las partes denuncie expresa y fehacientemente el mismo con una antelación mínima de **3 MESES**.

**Segundo**.- En atención al plazo de ejecución y al número de plazas convenidas, el precio máximo del Convenio asciende a la cantidad de **2.798.170,00 Euros (con IVA 4%)**, de acuerdo con el siguiente detalle:

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: Z89Y-KXHW-CSUB-C9N7
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

| URTEA AÑO | PLAZAK PLAZAS | ZABALIK EGONGO DEN EGUN KOPURUA DÍAS APERTURA | PREZIOA PLAZAKO ETA EGUNEKO (BEZik gabe) PRECIO PLAZA DIA (Sin IVA) | BEZ IVA | PREZIOA GUZTIRA (BEZarekin) PRECIO TOTAL (Con IVA) |
|---|---|---|---|---|---|
| **2024** | 36 | 366 | 102,24 € | %4 | 1.400.999,00 € |
| **2025** | 36 | 365 | 102,24 € | %4 | 1.397.171,00 € |

**Hirugarrena**.- Gizarte Ekintza Saileko foru diputatuari ahalmena ematea aipaturiko hitzarmena sina dezan.

**Laugarrena**.- Gizarte Ekintza Saileko foru diputatuari berariazko ahalmena ematea, Bizkaiko Foru Aldundiaren izenean eta haren ordezkari gisa, hitzarmenaren berariazko luzapenak Foru Agindu bidez ebatz ditzan.

**Bosgarrena**.- Hitzarmen hau ezartzetik eratorritako ordainketak honako aurrekontu-partida honen kargura egingo dira: 231107 programa, 0303 organikoa, 23708 ekonomikoa, 2009/0054 proiektu-zenbakia.

**Seigarrena**.- Erabaki hau interesdunei jakinaraztea, legezko eran."

Eta jasota gera dadin, eta akta oraindik ez dela onetsi ohartarazita, idazki hau idazten da, Bilbon, sinatzen den datan.

**Tercero**.- Facultar a la Diputada Foral del Departamento de Acción Social para que proceda a la firma del mencionado Convenio.

**Cuarto**.- Autorizar expresamente a la Diputada Foral del Departamento de Acción Social, para que, en nombre y representación de la Diputación Foral de Bizkaia, resuelva mediante Orden Foral las prórrogas expresas del Convenio.

**Quinto**.- Los pagos derivados de la aplicación del presente Convenio se efectuarán con cargo a la partida presupuestaria, Programa 231107; Orgánico 0303, Económico 23708, Nº de Proyecto 2009/0054.

**Sexto**.- Notificar el presente acuerdo, en legal forma, a las partes interesadas."

Y para que conste, y con la advertencia de que el Acta todavía no ha sido aprobada, se expide la presente, en Bilbao, a la fecha de la firma.

***ALDERATURIK ETA ADOS. VISTO BUENO Y CONFORME***

Idazkaritza Orokorreko Unitateko burua. Jefatura de la Unidad de Secretaria General. JOSEBA MIKEL GARCÍA PÉREZ

***HONAKO HONEK ZIURTATUA. CERTIFICA*** Herri Administraziorako eta Erakunde Harremanetarako foru diputatu eta idazkari jauna. El diputado foral de Administración Pública y Relaciones Institucionales y Secretario. AGER IZAGIRRE LOROÑO

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: Z89Y-KXHW-CSUB-C9N7
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

BIZKAIKO FORU ALDUNDIAREN ETA GESTIÓN DE SERVICIOS RESIDENCIALES S. COOP. ENTITATEAREN ARTEKO LANKIDETZA-HITZARMENA GAIXOTASUN MENTALA DUTEN PERTSONENTZAKO EGOITZA ZERBITZUA EMATEKO OIZPE EGOITZA-OSASUN MENTAL ZERBITZUA EGOITZAN.

CONVENIO DE COLABORACIÓN ENTRE LA DIPUTACIÓN FORAL DE BIZKAIA Y LA ENTIDAD GESTIÓN DE SERVICIOS RESIDENCIALES S. COOP. PARA LA PRESTACIÓN DE UN SERVICIO RESIDENCIAL PARA PERSONAS CON ENFERMEDAD MENTAL EN LA RESIDENCIA OIZPE EGOITZA-OSASUN MENTAL ZERBITZUA.

Bilbon,

En Bilbao,

BILDU DIRENAK

SE REÚNEN

ALDE BATETIK, Amaia Antxustegi Ziarda and., Gizarte Ekintza Saileko foru diputatua, Bizkaiko Foru Aldundiaren izenean (IFZ: P4800000D) eta haren ordezkari gisa Gobernu Kontseiluaren ko erabakiaren bidez hitzarmen hau formalizatzeko ahalmena duena,

DE UNA PARTE, Dña. Amaia Antxustegi Ziarda, Diputada Foral del Departamento de Acción Social, en nombre y representación de la Diputación Foral de Bizkaia (NIF: P4800000D), encontrándose facultada para la formalización del convenio por el Acuerdo del Consejo de Gobierno, de

BESTETIK, Claudia Andrea Luquita Garcia andrea, GESTIÓN DE SERVICIOS RESIDENCIALES S. COOP. (IFZ: F20795837) entitatearen ordezkaria.

DE OTRA PARTE, Dña. Claudia Andrea Luquita Garcia, como representante de la entidad GESTIÓN DE SERVICIOS RESIDENCIALES S. COOP. (NIF: F20795837).

Alderdiek agiri hau formalizatzeko behar den gaitasun juridikoa aintzatetsi diote elkarri eta, ados jarrita, aritzeko eman zaien ordezkaritza onartu diote elkarri.

Ambas partes se reconocen mutuamente la capacidad jurídica necesaria para la formalización del presente documento y aceptándose recíprocamente las representaciones a cuyo tenor actúan, de común acuerdo

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: Z89Y-KXHW-CSUB-C9N7
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

Bizkaia foru aldundia diputación foral
herri administrazioarako eta erakunde harremanetarako saila
departamento de administración pública y relaciones institucionales
idazkaritza orokorra / secretaría general

ADIERAZI DUTENA

LEHENENGOA.- Kasu honetan, betetzen dira Sektore Publikoko Kontratuen azaroaren 8ko 9/2017 Legearen 6. artikuluaren 1. eta 2. apartatuetan jasotakoa.

Hitzarmenaren edukia lege horren IV. Eranskinean jasota badago ere, legearen 11. artikuluaren 6. apartatuak lege horretatik kanpo uzten du entitate pribatuek gizarte-zerbitzuak ematea zerbitzu horien kostua finantzatze hutsaren bitartez, eta 4. artikuluak ezartzen du kanpo utzitako mota horretako negozioak lege berezian xedatutakoa bete beharko dutela, hau da, Gizarte Zerbitzuei buruzko Legean xedatutakoa.

Gizarte zerbitzuen abenduaren 5eko Eusko Legebiltzarraren 12/2008 Legeko 7. artikuluan gizarte zerbitzuen sistema arautuko duten abiaburu orokorrak zehaztu dira. Horko lehenengo atalean adierazten da gizarte zerbitzuen sistema botere publikoen erantzukizuna dela, eta botere publikoek bermatu beharko dituztela EAEko Gizarte Zerbitzuen eta Prestazioen Katalogoko prestazioak eta zerbitzuak eskuragarri eta jasotzeko moduan daudela.

Abiaburu horri dagokionez, botere publikoek kudeaketa publiko zuzenaren bidez bermatu beharko dituzten prestazio motak ezarri ondoren, aipatutako legeak ezarri du, modu osagarrian eta oro har, katalogo horrek jasotako zerbitzuak eta prestazioak hornitzeko kudeaketa publikoa eta gizarte ekimenen bidezko kudeaketa mantendu beharko direla.

MANIFIESTAN

PRIMERO. - En el presente supuesto, se da cumplimiento a las previsiones recogidas en los apartados 1 y 2 del artículo 6 de la Ley 9/2017, de 8 de noviembre, de Contratos del Sector Público.

Si bien el contenido del convenio se encuentra recogido dentro del Anexo IV de dicha Ley, el apartado 6º del artículo 11 de la misma excluye de dicha ley la prestación de servicios sociales por parte de entidades privadas, mediante la mera financiación del costo de dichos servicios, estableciendo el artículo 4º que este tipo de negocios excluidos se regirán por lo dispuesto en la ley especial, esto es, la Ley de Servicios Sociales.

La Ley del Parlamento Vasco 12/2008, de 5 de diciembre, de Servicios Sociales, en su artículo 7 determina los principios generales por los que se regirá el sistema de servicios sociales, señalando en su apartado primero que el sistema de servicios sociales es responsabilidad de los poderes públicos y que los mismos deberán garantizar la disponibilidad y acceso a las prestaciones y servicios regulados en el Catálogo de Prestaciones y Servicios del Sistema Vasco de Servicios Sociales.

En relación a ese mismo principio, y después de establecer el tipo de prestaciones cuya gestión pública directa deberán garantizar los poderes públicos, la referida Ley señala que, complementariamente, deberá preverse, con carácter general, la prevalencia de la gestión pública y de la gestión a través de la iniciativa social en la provisión de los servicios y prestaciones previstos en dicho Catálogo.

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: Z89Y-KXHW-CSUB-C9N7
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

Bizkaia foru aldundia diputación foral
herri administrazioarako eta erakunde harremanetarako saila
departamento de administración pública y relaciones institucionales
idazkaritza orokorra / secretaría general

BIGARRENA.- Gaixotasun mentala duten pertsonei arreta egitea eta haien autonomia sustatzea da Bizkaiko Foru Aldundiaren lehentasunezko jardun-lerroetako bat, desgaitasuna duten pertsonei eta haien senideei laguntzeko Partaidetzarako eta Bizi-kalitaterako Ereduarekin bat.

SEGUNDO. La atención y promoción de la autonomía de las personas con enfermedad mental constituye una de las líneas prioritarias de actuación de la Diputación Foral de Bizkaia, de acuerdo con el Modelo de Participación y Calidad de Vida en el apoyo a las personas con discapacidad y sus familias.

Eredu horren arabera, egoitza-arretaren zein eguneko arretaren arloetan erantzukizun publikoa duten gizarte-zerbitzuen sistemaren prestazioak eta baliabideak ere gaixotasun mentala duten pertsonei erantzuteko sistemaren parte dira, eta euskarri zein laguntza dira haien autonomia pertsonala, bizi-kalitatea eta komunitateko parte-hartzea bermatzeko, haien isolamendua eta estigma soziala gainditzeko eta haien eskubideen erabileran nahiz bizitza-proiektuaren garapenean aurrera egiteko, betiere osasun-sistemarekin batera koordinaturik

De acuerdo con este modelo, las prestaciones y recursos del Sistema de Servicios Sociales de responsabilidad pública en los ámbitos de atención residencial y diurna, forman parte del sistema de respuesta a las personas con enfermedad mental, constituyendo apoyos y soportes dirigidos a asegurar su autonomía personal, su calidad de vida y su participación en la comunidad, superando su aislamiento y estigma social, y avanzando en el ejercicio de todos sus derechos y desarrollo de su proyecto de vida desde un abordaje coordinado con el Sistema de Salud.

Gizarte Zerbitzuei buruzko abenduaren 5eko 12/2008 Legeak, bere 46.1. artikuluan, arreta soziosanitarioa definitzerakoan esaten du osasun-arazo larriak direla-eta, edo eginkizunen arloko mugak direla-eta, eta/edo gizartetik bazterturik geratzeko arriskua dela-eta, pertsona batzuek behar dituzten zainketek osatzen dutela arreta soziosanitarioa, osasun-arreta eta gizarte-arreta aldi berean biltzen dituena, koordinatua eta egonkorra, arreta jarraituaren printzipioarekin bat datorrena.

La Ley 12/2008, de 5 de diciembre, de Servicios Sociales define en su artículo 46.1 la atención sociosanitaria como el conjunto de cuidados destinados a las personas que, por causa de graves problemas de salud o limitaciones funcionales y/o de riesgo de exclusión social, necesitan una atención sanitaria y social simultánea, coordinada y estable, ajustada al principio de continuidad de la atención.

Halaber,46.2. artikuluak berariaz ezartzen du talde batzuek beste batzuek baino gehiago beharko dutela arreta soziosanitarioa eta horien artean daude, bereziki, buruko gaixotasunak dituztenak eta, bereziki, buru-gaixotasun larriak eta kronikoak dituztenak eta droga-arazoak dituztenak.

Asimismo, el apartado 46.2 recoge expresamente, entre los colectivos particularmente susceptibles de ser atendidos en el marco de la atención sociosanitaria, las personas con problemas de salud mental, en particular las personas con enfermedad mental grave y cronificada y las personas con problemas de drogodependencia.

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: Z89Y-KXHW-CSUB-C9N7
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

Bizkaia foru aldundia diputación foral
herri administrazioko eta erakunde harremanetarako saila
departamento de administración pública y relaciones institucionales
idazkaritza orokorra / secretaría general

Euskadi-2010 osasun mentaleko estrategiak, buruko nahasmendu larriak (BNL) dituzten pertsonentzako arretaren arloan eredu komunitarioa egituratzen duenak, bitarteko soziosanitarioak gomendatzen ditu talde horri dagokionez egonaldi luzeko ospitale psikiatrikoetan ospitaleratzearen alternatiba moduan.

La Estrategia de salud mental de Euskadi-2010, que articula el modelo comunitario como referente en la atención a las personas con trastorno mental graves (TMG), recomienda la creación de recursos sociosanitarios para este colectivo, como alternativa a la hospitalización en hospitales psiquiátricos de larga estancia.

Hala Eusko Jaurlaritzak nola foru erakundeek jakin dakite oso garrantzitsua dela sektoreen arteko eta erakundeen arteko lankidetzarako mekanismoak indartzea eta ondore horretarako azken hamarkadetan Euskadin arreta soziosanitarioa garatzeko lankidetza akordioak landu dira. Testuinguru honen barruan hitzarmen bat sinatu da buruko osasun arazoak dituzten pertsonei arreta eskaintzeko sistemako zentroetan osasun-prestaziodun gizarte zerbitzuak garatzeko, bereziki buruko gaixotasun larriak eta kronifikatuak dituzten eta baldintza eta titulu juridiko guztien arabera Bizkaiko Foru Aldundiaren menpean dauden pertsonei dagokienez, beti ere Euskal Autonomia Erkidegoko Gizarte Zerbitzuei buruzko abenduaren 5eko 12/2008 Legeak bere 22. artikuluak ezarri dituen zerbitzuen eta prestazioen katalogoaren barruan.

Tanto el Gobierno Vasco como las instituciones forales conscientes de la importancia de reforzar los mecanismos de colaboración intersectorial e interinstitucional han venido trabajando en las últimas décadas en acuerdos de colaboración para el desarrollo de la atención sociosanitaria en Euskadi y dentro de este contexto se ha firmado un convenio de colaboración para el desarrollo de los servicios sociales con prestación sanitaria en los centros del sistema de servicios sociales que atiendan a las personas con problemas de salud mental, en particular a las personas con enfermedad mental grave y cronificada y que bajo cualquier condición o título jurídico dependan de la Diputación Foral de Bizkaia, dentro del marco del catálogo de servicios y prestaciones de la Ley 12/2008, de 5 de diciembre, de Servicios Sociales de Euskadi, en su artículo 22.

Gizarte Zerbitzuei buruzko abenduaren 5eko 12/2008 Legeko 6.1.a) artikuluaren arabera, Bizkaiko Foru Aldundiari dagokio "Autonomia pertsonal sustatzera eta mendekotasunetik eratorritako beharrizan pertsonalak eta familia-beharrizanak saihestera eta horiei erantzutera" bideratutako gizarte zerbitzuak ematea. Halaber, berariaz dagokio lege horren 22. artikuluan jasotako gizarte zerbitzuaren katalogoaren 2.4.3 atalean (gaixotasun mentala duten pertsonentzako egoitza zentroak) zenbakian jasotako zerbitzua ematea.

Que de conformidad con el artículo 6.1.a) de la referida Ley 12/2008, de 5 de diciembre, de Servicios Sociales, corresponde a la Diputación Foral de Bizkaia la prestación de servicios sociales encaminados a *"Promover la autonomía personal y prevenir y atender las necesidades personales y familiares derivadas de la dependencia"*. Asimismo, le corresponde específicamente, la provisión de los servicios recogidos en el apartado (2.4.3) Centros Residenciales para personas con enfermedad mental del Catálogo de Servicios Sociales recogido en el artículo 22 de la misma Ley.

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: Z89Y-KXHW-CSUB-C9N7
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

Bizkaia foru aldundia diputación foral
herri administrazioko eta erakunde harremanetarako saila
departamento de administración pública y relaciones institucionales
idazkaritza orokorra / secretaria general

HIRUGARRENA.- . Aurrekontu Orokorrari buruzko abenduaren 29ko 5/2006 Foru Arauaren testu bategina onetsi zuen abenduaren 3ko 5/2013 Foru Dekretu Arauemaileko bosgarren xedapen gehigarriaren lehenengo idatz-zatian hauxe xedatu da: Bizkaiko Foru Aldundiak eta beraren foru-erakunde autonomoek lankidetza-hitzarmenak (helburua zeinahi dela) egin ahal izango dituzte nazioarteko zuzenbide publikoko erakundeekin, Estatuko Administrazio Nagusiarekin, Gizarte Segurantzarekin, autonomia-erkidegoekin, toki-erakundeekin, haien erakunde autonomoekin, sozietate publikoekin eta gainerako erakunde publikoekin, bai eta gizarte-zerbitzuen arloan diharduten erakundeekin ere, dena dela beraien izaera juridikoa.

TERCERO. La Disposición Adicional Quinta del Decreto Foral Normativo 5/2013, de 3 de diciembre, por el que se aprueba el texto refundido de la Norma Foral 5/2006, de 29 de diciembre, General Presupuestaria, dispone en su apartado primero que la Diputación Foral de Bizkaia y sus Organismos Autónomos Forales podrán celebrar convenios de colaboración cualquiera que sea su objeto, con entidades de derecho internacional público, la Administración General del Estado, la Seguridad Social, las Comunidades Autónomas, las entidades locales, los correspondientes organismos autónomos, las sociedades públicas, así como con las entidades que, independientemente de su naturaleza jurídica, tengan como objeto el ámbito de los servicios sociales.

LAUGARRENA.- .Azaroaren 22ko Bizkaiko Foru Aldundiaren 135/2022 Foru Dekretuko 1. artikuluan ezarri da Gizarte Ekintza Sailak Bizkaiko Lurralde Historikoan eskumen orokor hau izango duela gizarte zerbitzuen eremuan: gorputz, sentimen eta adimen urritasunen aurrearreta, detekzio, diagnostiko eta tratamendurako eta halako urritasuna dutenen orientazio eta integraziorako politika definitzea eta betearaztea, behar duten laguntza espezializatua eta herritar legez dituzten eskubideak gozatzeko behar duten itzalpea sartzeko.

CUARTO.- El Decreto Foral número 135/2022, de 22 de noviembre, de la Diputación Foral, por el que se aprueba el Reglamento Orgánico del Departamento de Acción Social de la Diputación Foral de Bizkaia, establece en su artículo 1, que este Departamento ejercerá en el ámbito del Territorio Histórico de Bizkaia y en materia de servicios sociales, entre otras, la definición y ejecución de la política de prevención, detección, diagnóstico, tratamiento, orientación e integración de las personas con discapacidad física, psíquica y sensorial, con inclusión de la atención especializada que requieran y del amparo que precisen para el disfrute de sus derechos de ciudadanía.

BOSGARRENA.- Eskumen-esparruarekin bat eta kontuan hartuta osasun mentalaren arloko plazen

QUINTO.- De acuerdo con el correspondiente marco competencial y atendiendo a una

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: Z89Y-KXHW-CSUB-C9N7
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

Bizkaia
foru aldundia
diputación foral
herri administrazioko eta erakunde harremanetarako saila
departamento de administración pública y relaciones institucionales
idazkaritza orokorra / secretaría general

eskaria gero eta handiagoa dela, ikusi da beharrezkoa dela lankidetza-hitzarmen bat egitea gaixotasun mental duten pertsonentzako 36 plaza eskaintzeko.

demanda creciente de plazas de salud mental, se ve la necesidad de elaborar un convenio de colaboración para ofrecer 36 plazas para la atención de personas con enfermedad mental.

SEIGARRENA.- Hitzarmen honek eragiten dituen gastuei aurre egiteko nahikoa kreditu dago aurrekontuko partida honetan: Ekonomikoa: 23708; Egitaraua: 231.107; Organikoa: 0303 Proiektuaren zenbakia: 2009/0054, A eranskineko 4. idatz-zatia (hitzarmenaren karatula).

. SEXTO.- - Para hacer frente al gasto originado por el presente Convenio existe crédito en la partida presupuestaria, Económico 23708, Programa 231.107; Orgánico 0303, Nº de Proyecto 2009/0054, que se indica en el apartado 4 del Anexo A – Carátula del Convenio.

Aurrekari horien arabera, bi erakundeek bidezkotzat jo dute lankidetza hitzarmena egitea. Jarraian hitzarmeneko klausulak azalduko dira.

En base a tales antecedentes ambas Entidades consideran oportuno establecer un convenio de colaboración, con arreglo a las siguientes

KLAUSULAK

CLÁUSULAS

LEHENENGOA.- XEDEA

Hitzarmen honen helburua da Bizkaiko Foru Aldundiaren Gizarte Ekintza eta GESTIÓN DE SERVICIOS RESIDENCIALES S. COOP. entitatearen (aurrerantzean, zerbitzua emateko erakunde laguntzailea) arteko lankidetza-hitzarmena onesteko, egoitza- zerbitzua emateko OIZPE EGOITZA-OSASUN MENTAL ZERBITZUA EGOITZAN.

PRIMERA. - OBJETO.

El presente convenio tiene por objeto establecer las relaciones de colaboración entre la Diputación Foral de Bizkaia, Departamento de Acción Social y la entidad GESTIÓN DE SERVICIOS RESIDENCIALES S. COOP., en adelante Entidad Colaboradora para la prestación del Servicio, para la prestación del servicio residencial en la RESIDENCIA OIZPE EGOITZA-OSASUN MENTAL ZERBITZUA.

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: Z89Y-KXHW-CSUB-C9N7
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

Bizkaia foru aldundia diputación foral
herri administrazioko eta erakunde harremanetarako saila
departamento de administración pública y relaciones institucionales
idazkaritza orokorra / secretaría general

BIGARRENA.- HITZARMENAREN ARAUBIDE JURIDIKOA.

Hitzarmen hau administratiboa da, eta bertan xedatutakoari ez ezik zuzen edo zeharka aplika daitezkeen Administrazio Zuzenbideko arauei ere lotu behar zaie.

Hain zuzen, jarraian adieraziko diren testuetan xedatutakoa aplikatu behar da:

- 40/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoarena.
- Eusko Legebiltzarraren abenduaren 5eko 12/2008 Legea, Gizarte Zerbitzuei buruzkoa.
- Martxoaren 16ko 1/2023 Legegintzako Dekretua, Emakumeen eta gizonen berdintasunerako eta emakumeen aurkako indarkeria matxistarik gabeko bizitzetarako Legearen testu bategina onartzen duena.
- 185/2015 Dekretua, urriaren 6koa, Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemako prestazioen eta zerbitzuen zorroari buruzkoa.
- 168/2023 Dekretua, azaroaren 7koa, Gizarte Zerbitzuen Euskal Sisteman itun sozialaren araubidea eta hitzarmenak arautzen dituena.
- 5/2013 Foru Dekretu Arauemailea, abenduaren 3koa, Aurrekontuei buruzko abenduaren 29ko 5/2006 Foru Arau Orokorraren testu bategina onetsi duena.
- Bizkaiko Lurralde Historikoko kasuan kasuko urteko aurrekontu orokorrari buruzko foru araua.

SEGUNDA. - REGIMEN JURÍDICO DEL CONVENIO.

El presente convenio tiene naturaleza administrativa y se regirá, además de por lo dispuesto en el mismo, por las normas de Derecho Administrativo que, directa o por analogía, pudieran resultar de aplicación.

En particular, resulta aplicable lo dispuesto en:

- Ley 40/2015, de 1 de octubre, de Régimen Jurídico del Sector Público.
- Ley 12/2008, de 5 de diciembre, del Parlamento Vasco, de Servicios Sociales.
- Decreto Legislativo 1/2023, de 16 de marzo, por el que se aprueba el texto refundido de la Ley para la Igualdad de Mujeres y Hombres y Vidas Libres de Violencia Machista contra las Mujeres.
- Decreto 185/2015, de 6 de octubre, de cartera de prestaciones y servicios del Sistema Vasco de Servicios Sociales.
- Decreto 168/2023, de 7 de noviembre, por el que se regulan el régimen de concierto social y los convenios en el Sistema Vasco de Servicios Sociales
- Decreto Foral Normativo 5/2013 de 3 de diciembre por el que se aprueba el texto refundido de la Norma Foral 5/2006 de 29 de diciembre, General Presupuestaria.
- La Norma Foral de Presupuestos del Territorio Histórico de Bizkaia del año correspondiente.

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: Z89Y-KXHW-CSUB-C9N7
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

Bizkaia foru aldundia diputación foral
herri administrazioarako eta erakunde harremanetarako saila
departamento de administración pública y relaciones institucionales
idazkaritza orokorra / secretaria general

- 3/1987 Foru Araua, otsailaren 13koa, Bizkaiko Lurralde Historikoko Foru Erakundeen Hautapen, Antolaketa, Araubide eta Jardunbideari buruzkoa.
- Norma Foral 3/1987, de 13 de febrero, sobre Elección, Organización, Régimen y Funcionamiento de las Instituciones Forales del Territorio Histórico de Bizkaia.
- 1/2016 Foru Araua, otsailaren 17koa, Bizkaiko Gardentasunari buruzkoa.
- Norma Foral 1/2016, de 17 de febrero, de Transparencia de Bizkaia.
- Ekainaren 20ko 4/2018 Foru Araua, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerakoa.
- Norma Foral 4/2018, de 20 de junio, para la Igualdad de Mujeres y Hombres.
- Bizkaiko Foru Aldundiaren 169/2014 Foru Dekretua, abenduaren 16koa. Honen bidez, Bizkaiko Lurralde Historikoko Aurrekontuei buruzko Araudi Orokorra onesten da, Aurrekontuei buruzko abenduaren 29ko 5/2006 Foru Arau Orokorraren testu bateginagaratzen duena.
- Decreto Foral de la Diputación Foral de Bizkaia 169/2014, de 16 de diciembre, por el que se aprueba el Reglamento General Presupuestario del Territorio Histórico de Bizkaia, de desarrollo del Texto Refundido de la Norma Foral 5/2006 de 29 de diciembre, General Presupuestaria.
- Bizkaiko Foru Aldundiaren 24/2020 Foru Dekretua, martxoaren 31ekoa, gaixotasun mentala duten pertsonentzako egoitza-zentroetarako zein eguneko zentroetarako sarbidea arautzen duena.
- Decreto Foral de la Diputación foral de Bizkaia 24/2020, de 31 de marzo, por el que se regula el acceso a centros residenciales y centros de día para personas con enfermedad mental.

HIRUGARRENA.- EGOITZA ZERBITZUA ETA KOKAPENA.

Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren Prestazio eta Zerbitzuen Zorroari buruzko urriaren 6ko 185/2015 Dekretuaren arabera, gaixotasun mental kronikoak dituzten pertsonei arreta ematen dien gizarte eta osasun izaerako zentroak edo zerbitzuak dira. Arreta hori gaitasunak eta trebetasunak (pertsonalak zein erlazionalak) hobetzera bideratutako prestazioen bidez ematen da, norberaren garapena, integrazioa eta ingurunean parte-hartzea errazteko eta orokorrean bizi-kalitatea hobetzeko xedearekin.

TERCERA. - DEFINICIÓN DEL SERVICIO Y UBICACIÓN.

En el marco del resto de previsiones del Decreto 185/2015, de 6 de octubre, de Cartera de Prestaciones y Servicios del Sistema Vasco de Servicios Sociales son centros o servicios de carácter sociosanitario que atienden a personas con enfermedad mental crónica mediante prestaciones orientadas a mejorar sus capacidades y habilidades, personales y relacionales, con el fin de favorecer su desarrollo personal, su integración y participación en el entorno, y en general, mejorar su calidad de vida.

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: Z89Y-KXHW-CSUB-C9N7
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

Bizkaia foru aldundia diputación foral
herri administrazioko eta erakunde harremanetarako saila
departamento de administración pública y relaciones institucionales
idazkaritza orokorra / secretaría general

Zerbitzu hau A eranskineko 2. idatz-zatian (hitzarmenaren karatula) adierazitako higiezinean egingo da.

La prestación del presente servicio se realizará en el inmueble indicado en el apartado 2 del Anexo A – Carátula del Convenio.

<u>LAUGARRENA</u>. - ZERBITZUAREN EDUKIERA, EGUNAK ETA URTEKO ORDUTEGIA.

<u>CUARTA</u>. - CAPACIDAD, DÍAS Y HORARIO ANUAL DEL SERVICIO.

Bizkaiko Foru Aldundiak konpromisoa hartu du A eranskineko 5. idatz-zatian (hitzarmenaren karatula) zehaztutako plaza kopurua betetzeko.

La Diputación Foral de Bizkaia se compromete a la cobertura de las plazas indicadas en el apartado 5 del Anexo A – Carátula del Convenio.

Zerbitzua A eranskineko 6. idatz-zatian (Hitzarmenaren Karatula) adierazitako egunetan egongo da irekita.

El Servicio permanecerá abierto durante los días anuales que se indican en el apartado 6 del Anexo A – Carátula del Convenio.

Ondore guztietarako, 6. idatz-zati horretan adierazitako urteko egun kopurua gehienekoa da ordainketari dagokionez; alabaina, urteko egutegiko lehen hamabost egunetan urteko egutegia aurkeztu beharko da.

A todos los efectos los días anuales indicados en el citado apartado 6, se entenderán como máximos a efectos de pago, si bien, dentro de los quince primeros días naturales del año, se deberá aportar un calendario anual.

<u>BOSGARRENA</u>. - HITZARMENAREN PREZIOA, GEHIENEZ.

<u>QUINTA</u>. PRECIO MÁXIMO DEL CONVENIO.

Erakundeak aurkeztutako sarreren eta gastuen aurrekontuaren arabera, Gizarte Ekintza Sailak, pertsona erabiltzaile bakoitzeko aleko prezioa eta A eranskineko, Hitzarmenaren karatula, 7 eta 8 idatz-zatietan adierazi den gehieneko prezioa ezartzen ditu.

De acuerdo con el presupuesto de Ingresos y Gastos aportados por la entidad, la Diputación Foral de Bizkaia – Departamento de Acción Social fija el precio plaza día por persona usuaria y el precio máximo del Convenio indicados en los apartados 7 y 8 del Anexo A – Carátula del Convenio.

Kopuru horren barruan sartzen dira zerbitzuei atxikitako gastu guztiak eta aplikagarriak diren zerga eta tasa guztiak.

En dichas cifras se entienden incluidos todo tipo de gastos inherentes a los servicios y cuantos impuestos tributos y tasas fueran aplicables.

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: Z89Y-KXHW-CSUB-C9N7
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

Bizkaia foru aldundia diputación foral
herri administrazioarako eta erakunde harremanetarako saila
departamento de administración pública y relaciones institucionales
idazkaritza orokorra / secretaría general

SEIGARRENA. - HELBURUAK: HELBURU NAGUSIA.

Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren Prestazio eta Zerbitzuen Zorroari buruzko urriaren 6ko 185/2015 Dekretuan ezarritakoaren esparruan:

Gaixotasun mentalak dituzten pertsonentzako egoitza-zentroek gaixotasun mentalak dituzten pertsonei laguntzen diete, baldin eta beren premiak ezin badituzte behar bezala bete beren ohiko ingurunean, eta ez badute behar beste intentsitaterik eta beste arreta-sistema batzuetako zerbitzuen berezko laguntzarik. Laguntza-maila aldizkakoa, mugatua, zabala eta orokorra bermatzen dute, indibidualizatua eta beren premia aldakorretara egokitua. Eta, horretarako, ongizate fisiko, psikologiko eta sozialera bideratutako arreta emateko profil egokiak dituzten profesionalen diziplina anitzeko talde baten laguntza dute. Aldi baterako egonaldiko, egonaldi luzeko edo egonaldi iraunkorreko zerbitzuak dira.

Helburuak hauek dira:

a) Erabiltzaileen autonomia pertsonala mantentzea eta, ahal den neurrian, sustatzea autonomia pertsonala garatzen dela eta ez dela galtzen.

b) Haien garapen pertsonala, gaitasunak, trebetasunak eta esperientziak bultzatzea.

c) Aukerak eskaintzea integratu daitezen, komunitatean parte har dezaten eta komunitatearen zerbitzuak erabil ditzaten, inguruneko jarduera kultural eta sozialetan eta asialdikoetan parte hartuz.

d) Laguntzako familia- eta gizarte-sareak mantentzea eta sendotzea sustatzea.

e) Haien segurtasun-sentimendua sustatzea.

SEXTA. - OBJETIVOS: FINALIDAD GENERAL.

En el marco de lo previsto en el Decreto 185/2015, de 6 de octubre, de Cartera de Prestaciones y Servicios del Sistema Vasco de Servicios Sociales:

Los centros residenciales para personas con enfermedad mental atienden a personas con enfermedad mental que no pueden satisfacer adecuadamente sus necesidades en su entorno habitual y que no requieren una intensidad y un tipo de apoyos propios de servicios enmarcados en otros sistemas de atención. Garantizan niveles de apoyo intermitente, limitado, extenso y generalizado, de carácter individualizado y adaptados a sus necesidades cambiantes. Y, para ello, cuentan con el apoyo de un equipo multidisciplinar de profesionales con los perfiles idóneos para prestar una atención orientada al bienestar físico, psicológico y social. Son servicios de estancia temporal, larga estancia o estancia permanente.

Sus objetivos son:

a) Mantener la autonomía personal de las personas usuarias, y en lo posible fomentar el desarrollo de las mismas y evitar su deterioro.

b) Potenciar su desarrollo personal, capacidades, habilidades y experiencias.

c) Ofrecerles oportunidades de integrarse y participar en el entorno comunitario y de utilizar los servicios comunitarios tomando parte en actividades culturales, sociales y recreativas de su entorno.

d) Promover el mantenimiento y el refuerzo de sus redes familiares y sociales de apoyo.

e) Favorecer su sentimiento de seguridad.

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: Z89Y-KXHW-CSUB-C9N7
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

Bizkaia foru aldundia diputación foral
herri administrazioko eta erakunde harremanetarako saila
departamento de administración pública y relaciones institucionales
idazkaritza orokorra / secretaría general

ZAZPIGARRENA. - ZERBITZUAREN JASOTZAILEAK.

Eskaera aurkezteko unean betekizun guztiak betetzen dituzten pertsonak izan daitezke eguneko zentroko erabiltzaile. Hona betekizunak:

1. Sartzeko unean 18 urte edo gehiago dituzten pertsonak. Salbuespen gisa, adin txikiagokoak ere sartu ahal izango dira:

-Haien beharrizanek edo gizarte- zein familia egoeraren larritasunak hala egitea gomendatzen dutenean.

-Babesgabetasun-arrisku larriko egoeretan, baldin eta halako egoerez beren-beregi arduratzen diren babes-baliabideek ezin dutenean arreta egokia bermatu.

2. Gaixotasun mental kronikoaren edo nahasmendu mental larri eta luzearen diagnostikoa edukitzea, Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzuak emana, eta gaixotasun horren ondoriozko mendetasun-egoeraren aitorpena, Gizarte Ekintza Saileko Ebaluazio eta Orientazio Zerbitzuak baloratua (I. gradua, gutxienez).

3. Laguntza behar izatea: aldian aldikoa, mugatua, luzarokoa edo orokorra.

4. Psikopatologia-egoera egonkortu batean egotea eta ez egotea krisi psikiatriko batean.

SÉPTIMA. - PERSONAS DESTINATARIAS DEL SERVICIO.

Podrán ser personas usuarias del centro residencial todas las personas que reúnan, en el momento de la presentación de la solicitud, los siguientes requisitos:

1. Personas de 18 años o más en el momento del acceso. Con carácter excepcional, podrán acceder personas menores de edad:

-Cuando sus necesidades o la gravedad de la situación sociofamiliar lo aconsejen.

-En los supuestos de riesgo grave de desprotección o desamparo cuando en los dispositivos de protección específicamente destinados a tales situaciones no sea posible garantizar la atención adecuada.

2. Contar con un diagnóstico de enfermedad mental crónica o de trastorno mental grave y prolongado, emitido por Osakidetza-Servicio vasco de salud y con reconocimiento de dependencia derivado de dicha enfermedad valorado por el Servicio de Valoración y Orientación del Departamento de Acción Social (mínimo Grado I).

3. Requerir apoyo intermitente, limitado, extenso o generalizado.

4. Presentar una situación psicopatológica estabilizada y no encontrarse en situación de crisis psiquiátrica.

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: Z89Y-KXHW-CSUB-C9N7
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

Bizkaia
foru aldundia
diputación foral
herri administrazioko eta erakunde harremanetarako saila
departamento de administración pública y relaciones institucionales
idazkaritza orokorra / secretaría general

5. Behar ez izatea baliabidearen aukera eta dotazioetatik kanpo dagoen osasun mentalaren arloko laguntza espezializatu eta iraunkorrik.

5. No precisar una asistencia sanitaria especializada y permanente en salud mental fuera del alcance y posibilidades de las dotaciones propias del recurso.

6. Erabiltzaileek uko ez egitea bere osasun fisiko zein mentaleko arazoei aurre egiteko tratamenduari.

6. No rechazar el tratamiento que corresponda a sus problemas de salud física y mental.

7. Zentroaren funtzionamendua edo bertako bizitza eragotz dezaketen portaera-nahasmendu larririk ez izatea, hau da, gaixotasun mentala duten pertsonentzako zentroen berezko baliabideen bidez kontrolatu ezin den nahasmendurik.

7. No padecer trastornos graves de conducta y/o comportamientos que puedan distorsionar gravemente el funcionamiento del centro o la normal convivencia en el mismo, no controlables con los medios propios de este tipo de centros para personas con enfermedad mental.

Aurrean aipatutako baldintzak eskaera aurkezten denean bete behar dira, eta hala mantendu behar dira zentroko egonaldi osoan.

Los requisitos anteriormente relacionados deberán ser cumplidos en el momento de la solicitud, y mantenerse durante todo el tiempo que permanezca en el centro.

<u>ZORTZIGARRENA</u>. - ZERBITZUAREN EGINKIZUNAK ETA PRESTAZIOAK.

Ondorio guztietarako, zerbitzu unitate hauek oinarrizkoak izango dira, jarraian zehazten diren eduki eta prozesu hauekin:

<u>OCTAVA</u>. - FUNCIONES Y PRESTACIONES DEL SERVICIO.

A todos los efectos se consideran básicas las siguientes unidades de servicio con los contenidos y procesos que, a continuación, se detallan:

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: Z89Y-KXHW-CSUB-C9N7
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

Bizkaia foru aldundia diputación foral
herri administrazioko eta erakunde harremanetarako saila
departamento de administración pública y relaciones institucionales
idazkaritza orokorra / secretaría general

| ZERBITZU UNITATEAK | GAKO PROZESUAK ETA EDUKIAK | UNIDADES DE SERVICIO | CONTENIDOS Y PROCESOS CLAVE |
|---|---|---|---|
| OINARRIZKO ARRETA PERTSONALEN ZERBITZUA | Ezintasuna duen pertsonaren eta bere ingurunearen oinarrizko ongizatea lortu eta mantentzeko beharrezko jarduerak: garbiketa, higienea eta atontze pertsonala, elikadura, medikazioa, lekualdaketetan laguntzea, etab.<br><br>Horretarako:<br>• Erabiltzaile bakoitzaren “Banakako sustapenerako profila” beharrezkoa da, oinarrizko alderdi pertsonal guztiei buruzkoa (elikadura, garbiketa, osasuna, janzkera, esfinterraren erabilpena, loa eta atsedena, laguntza teknikoen erabilpena, osasun eta botika beharrak, jarrera eta joan-etorrien kontrola, eta abar), zuzeneko arretako profesionalaren esku-hartzea orientatzeko erabiltzaileekiko harremanetan, eta prozesu horien erregistroak. Erregistro horiek urtean behin berrikusi beharra dago, gutxienez.<br>• Zuzeneko arretaren jarduera erregistratzeko sistema egongo da, txandak koordinatzeko eta sustapenerako profilak etengabe hobetzeko<br>• Zuzeneko arretako langileek laguntza teknikoak zuzen erabiltzen jakingo dute.<br>• Zuzeneko profesionalek larrialdi kasuetan jarduteko jarraibideak jakingo dituzte: sutea, gas ihesak, etab. | SERV. CUIDADOS PERSONALES BÁSICOS | Actividades necesarias para la obtención y mantenimiento del bienestar básico de la persona discapacitada y el entorno en el que vive: aseo, higiene y arreglo personal, alimentación, medicación, apoyo en movilidad, etc.<br><br>Para ello:<br>• Habrá de contarse con un “Perfil de Apoyos Individualizado” de cada persona usuaria, referido a todos los aspectos personales básicos (nutrición, aseo, salud, vestido, evacuación esfinteriana, sueño y reposo, utilización de las ayudas técnicas, necesidades sanitarias y farmacológicas, control postural y traslados, etc.), que oriente la intervención del profesional de atención directa en su interrelación con las personas usuarias, así como los registros necesarios de dichos procesos, con una revisión mínima anual.<br>• Se dispondrá de un sistema de registro de la actividad de atención directa tanto con el objetivo de coordinación entre los diferentes turnos como con el objetivo de la mejora continua de los perfiles de apoyo.<br>• Los y las profesionales de atención directa conocerán el manejo correcto de las ayudas técnicas.<br>• Los y las profesionales de atención directa conocerán las pautas de actuación en los casos de emergencia: fuego, fuga de gases, etc. |

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: Z89Y-KXHW-CSUB-C9N7
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

Bizkaia foru aldundia diputación foral
herri administraziorako eta erakunde harremanetarako saila
departamento de administración pública y relaciones institucionales
idazkaritza orokorra / secretaría general

| ZERBITZU UNITATEAK | GAKO PROZESUAK ETA EDUKIAK | UNIDADES DE SERVICIO | CONTENIDOS Y PROCESOS CLAVE |
|---|---|---|---|
| AISIA ETA ASTIALDIKO ZERBITZUA | Norberaren garapena eta ondo pasatzea helburu duten jarduerak, aisialdiaren bidez, kirolaren bidez, eta abar, ongizate emozionala areagotzeko.<br>Horretarako:<br>• Aisialdirako, jostetarako eta norberak ondo pasatzeko jarduerak egitea ahalbidetuko da.<br>• Aisialdirako, jostetarako eta norberak ondo pasatzeko jarduerak egitea ahalbidetuko da. Astialdiko jardueretan boluntarioak aritzeko eta adiskide eta senideen bisitak bultzatzeko politikak abiarazi behar dira.. | SERV. DE OCIO Y TIEMPO LIBRE | Actividades cuya razón de ser es el disfrute y desarrollo personal a través de momentos de ocio, esparcimiento, actividades deportivas, etc., que proporcionen un mayor grado de bienestar emocional.<br>Para ello:<br>• Se posibilitará la realización de actividades encaminadas a proporcionar momentos de ocio, esparcimiento y disfrute personal.<br>• Exisitirán políticas de actuación, claramente establecidas, que favorezcan la participación de voluntarios/as en actividades de ocio, las visitas de amigos/as y familiares, etc. |
| ZERB. TEKNIKO ESPEZIALIZATUAK | Erabiltzaileak edota haren familiak gai jakinetatik laguntza zehatza behar duten arloetan aldi baterako tratamenduak edo tratamendu iraunkorrak, erabiltzailearekiko esku hartze pertsonaleko arloetan zein beste profesional batzuekiko koordinazioan.<br>Horretarako:<br>• Erabiltzaileen banakako planifikazio-saioetan laguntza eta/edo koordinazioa, pertsonak ardatz hartuta.<br>• Kasu bakoitzean, espezialistek idatziz zehaztuko dute erabiltzaile bakoitzarentzat berariazko sustapenik egin beharrik dagoen, intentsitatea, maiztasuna... | SERV. TÉCNICOS ESPECIALIZADOS | Tratamientos de carácter temporal o permanente en aquellas áreas en las que la persona usuaria precise una intervención concreta desde las distintas disciplinas, tanto en tareas de intervención personal con la persona usuaria, como de coordinación entre profesionales.<br>Para ello:<br>• Apoyo Apoyo y/o Coordinación de las sesiones de Planificación centrada en las personas.<br>• En cada caso, el personal especialista determinará, por escrito la necesidad o no de realizar apoyos específicos para cada persona usuaria, intensidad, frecuencia, etc. |

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: Z89Y-KXHW-CSUB-C9N7
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

Bizkaia foru aldundia diputación foral
herri administraziorako eta erakunde harremanetarako saila
departamento de administración pública y relaciones institucionales
idazkaritza orokorra / secretaría general

| ZERBITZU UNITATEAK | GAKO PROZESUAK ETA EDUKIAK | UNIDADES DE SERVICIO | CONTENIDOS Y PROCESOS CLAVE |
|---|---|---|---|
| | • “Praktika oneko eskuliburua” egongo da portaera arazoetan eta esku-hartze egokietan.<br><br>• Erabiltzaile bakoitzak eguneratutako espedientea egongo da, erabiltzaile bakoitzaren osasun, familia, pertsona alderdiak, eta portaera, gustu... arazoak, eta banakako sustapen profilak agertzeko. | | • Se contará con un “Manual de Buena Práctica” en materia de problemas de conducta e intervenciones adecuadas.<br><br>• Se dispondrá de un expediente actualizado por cada persona usuaria, donde se reflejen todos los aspectos médicos, familiares, personales, problemas de conducta, gustos, etc. de cada persona usuaria, así como los perfiles de apoyo individual. |
| ZUZENDARITZA ETA ADMINISTRAZIO ZERB. | Zentroa zuzentzeko, administratzeko eta kudeatzeko jarduerak.<br><br>Horretarako Zerbitzuak edukiko du:<br><br>• Estilo eskuliburu bat, erabiltzaileen intimitatea eta pribatutasuna babesteko.<br><br>• Segurtasuneko eta larrialdietarako eskuliburua edo plana.<br><br>• Zerbitzuak ebakuazio plana eduki behar du, indarreko dagoen araudia betetzen duena, eta eraikinak ebakuatzeko praktikak egingo dira.<br><br>• Familiarekiko harremanak suspertzeko neurriak ezarriko dira, bai erabiltzailearekiko harremanetarako, bai zerbitzua ematen duen erakundearekiko harremanetan, eta erakundean parte hartzeko. Gutxienez ere harreman pertsonal edo talde-harreman bat ezarriko da urtean.<br><br>• Galdera-sorta laburra egingo da familiak pozik dauden jakiteko. | SERV. DIRECCIÓN Y ADMINISTRACIÓN | Actividades que impliquen tareas de dirección, administración y gestión del Centro.<br><br>Para ello el servicio dispondrá de:<br><br>• Un Manual de Estilo que defienda la intimidad y privacidad de la persona usuaria.<br><br>• Un Manual o Plan sobre Seguridad y Emergencias.<br><br>• Un Plan de Evacuación, conforme a la normativa en vigor y se realizarán habitualmente prácticas de evacuación de los edificios.<br><br>• Se articularán medidas que promuevan la relación de las familias, tanto con las propias personas usuarias, como con la Entidad Colaboradora para la prestación del servicio y su participación en el mismo, estableciéndose una relación personal o grupal al año como mínimo.<br><br>• Una breve encuesta de satisfacción a las familias. |

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: Z89Y-KXHW-CSUB-C9N7
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

Bizkaia foru aldundia diputación foral
herri administrazioorako eta erakunde harremanetarako saila
departamento de administración pública y relaciones institucionales
idazkaritza orokorra / secretaría general

| ZERBITZU UNITATEAK | GAKO PROZESUAK ETA EDUKIAK | UNIDADES DE SERVICIO | CONTENIDOS Y PROCESOS CLAVE |
|---|---|---|---|
| | • Erabiltzaile gehiago zein langile gehiago hartzeko plan estandarizatua egongo da.<br>• Zentroko urtebeteko plan laburra, lortu beharreko helburu zehatzekin.<br>• Kexen protokoloa eta iradokizunetarako postontzia erabiltzaileentzat.<br>• Erabiltzaileen eta senitartekoen eskubideen eta betebeharren gutuna.<br>• Langileak trebatzeko plana. | | • Un plan estandarizado de acogida tanto para nuevas personas usuarias como para el personal de nuevo ingreso.<br>• Un Plan anual de centro con los objetivos concretos a lograr.<br>• Un Protocolo de Quejas y Buzón de Sugerencias para las personas usuarias.<br>• Una Carta de Derechos y Deberes para las personas usuarias y sus familias.<br>• Un Plan de Formación del Personal. |
